Erref. kodea: LAF-205-040

Izenburua: Euskarari buruzko hitzaldia: *II. Ikastegietako gazteriari. Eskuararen etorkizuna*

## :II Ikastegietako gazteriari

### Eskuararen etorkizuna

Ikasliar maiteak, berritz zueri goazkitzue gure gogoeten bihurtzerat. Bai uste azkar eta gozo bat zaiku eztuzuela eskuara galtzerat utzi nahi; baina aitzitik zuen bihotz ezpainetan argi eta garbi haren birpizteko aiher zaretela. Jadanik hemen berean aipatu derautzuegu nola ikas gure hitzuntza zahar eder hori. Holakan gaizki mintzaku gare. Huna zertaz datza.

Behin jaun batek aurkitu zituen bi mutiko aspaldiko idazki bat azalkatzen zutela, luma eskuan. Ari ziren hitz hautatzen; aitortu behar baita erdarrari soberasko mailegatzen ziotela behialakoek ere eta orai baitezpadako dagokula lastotik bihiaren berezitzeko lana. Sail horri lotuak zitzaizkion bada bi mutikoak eta delako jaunak zertan ote ari ziren galdegin. Hek ihardetsi eskuara ikasi beharrez daraunsatela.

— Zer! Liburuetan! Nor da molde hori eman derautzuen zozoa!

— Orizu, agerkari batean irakurririk, holache gabiltza.

— Zuentzat! Ez nuke darabiltzatzuen zorokerietan ari nahi, lurreko diru guzia balitz ere saria.

— Denak baitakizkitzu! Ezkare oraino hein hortan!

— Herria zertako izan behar duzuen eleka eta ez hosto zuhail mia; bertzela deus onik.

— Lasterchegi mintzo zare, jauna... garbiki nahi dugu eskuara erabili eta ez nolazpait hinki-hanka kaskoin batzu bezala.

— Nere ustez kaskoin batzu bezala mintzatzeko bidea hartzen duzue eta. Ezen zer da eskuara? Eskualdunen mintzaia, naski. Beraz beharria eskain herritarreri

ta zuen zaharkeriak debruetan barna igor.

— Ezteraultzut erran gure herritarren irakaspenak baztertzen ditugula. Bainan badadukat behar direla ere arbasoen solasak ikertu.

Mutikoak ederki erantzun zion hori eta jaunak etzeraukon galdegin gaineratekoa.

Alabainan murrukutun hainitz kausituko ditutzue, gazte maiteak, zuen aitzinean. Beti nunbaitikan agertzen dire gizon jite kirets batzu bekaizkiaz edo zimikatu beharrez, uli gaichto iduriak, nehun ezin geldiak baitire. Zuen bidetik zeihararaz holako mutur zimurtuak eta beldurrik gabe jo lanari, eskual solas-molde garbiaren bila.

Ezen, badakizue hitzkuntza batean maizenik bi solas-molde erabiltzen direla: bata arrunta, bertzea garbia. Bata egun guzietako eletan sartua, bide makur-neke bati darraio, erdarreri nola nahika nahaskatzen dela. Bertzeak, nahiz den etorki berekoa, argiagoak ditu bere urratsak, inharrosten baititu bere jauntziak, amoreak gatik eta mintzai arrotz erhautsik ahal bezain guti ekar dezoten. Bata, gizakien gora-behereri datchetela, berenaz emeki-emeki galtzerat doa, itsasturi gabezko untzi bat ur handi hasarretan baitirudi. Bertzeak bere ingurunetako uhinen eragiteari ihesi eztio egiten, bainan heien oldarreri ihardokitzen haratik eta holache aitzina bizi. Bata ondikotz gehienik gure herrietan mihiz-mihi bihurtua da; bertzea aldiz gehienik gutunetan eta irakurgaietan asentatua.

Bi solas-molde hoik eztitugu elgarretarik berezi behar, ama alaba direnaz geroz. Eta nola, adinetarat heldu ondoan, alaba batek artatzen baitu bere ama, halaber hitzkuntza garbiak arruntaren atchikitzeko eta azkartzeko badaduka lana eta eginbidea. Alabainan jakintsuneri doate beregainki mintzaiaren leguntzea eta bortitztea ere. Gizon larri frango baditugu Eskual-Herrian sail horri darraiotela. Ordean eztire betikotz lurrean agertu eta heriotzeaz orhoitzen direnean gibelerat so egiten dute ea odola lo denez gazteen zainetan edo aitzitik bero diraukienez. Nahi lukete beren ondokoetan kar izpi bat, ideki duten bide ederrari bolo emaiteko. Bainan alde guzietarik nagikeria eta ezachokeria!

Otoi, zure dorpea inharros, gazteri maitea; zure asmu alferrak ohondika eta ostika. Gero chede zin bat har ezazu ahala eginen duzula behin zuhaurek garbiki eskuararen ikasteko eta haren irakasteko ere zure haurreri...

Lehia hor, biharko buruzagia baitzare eta zure ezkuetan baitatza gure hitzkuntza zaharraren etorkizuna.

Gizakiek begiratzen derautzute ea gure arbasoek iraun duten araberan jakinen ote duzun eskualdun irauten. Bai eta gogo emozute heldu diren mendetako jakintsuneri. Gure lur choko eztiko gertakariak ikertuko dituztenean, eztute erranen ahal balinba, ahalgez gure hobietarik burua itzultzearekin: «Toki huntan bizi izan da gizaki handi bat solaskuntza eder bat zerabilana. Bainan harri hoien azpian lo dagozinek ezpaitute bertzerik egin sort-herriaren indarrarentzat, suntsitu dute. Goazin hemendik! Higuingarriak baitire...»

Ez, ez, ikasliar maiteak, ezkaituzte hoin garratzki aipatuko. Ezpaitugu nahi hobendun izan, nahi baitugu aitzitik gutarik doan guzia egin nekearen beldurrik gabe. Ezkaituzte higuingarri deituko, eztute burua

gure hobietarik gibeleratuko, bainan erranen dute gure hezur churitnak estaliko dituen harriari bi musu emaitearekin : « Hogoigarren mendean agertu da eskualdun Kartsu moltcho bat, guziz argitua, trikatu gabe ari izana baita Eskual-Herria bortitzten eskuararatzen, goretsi ditzagun ! »

Agian ordukotzat « Zazpiak bat » ezta hitz arin eta huts bat izanen. Agian erdarra zeihararazia ukanen dute gure ondokoek. Bai lanari lot, gazteak ! lanari lot, etorkizunak igurikitzen baikaitu eta gure sailari jarraikiren baitzio gure geroko leloa.

---